

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA

Apirilaren 17 eta 18an *Euskaltzaindiak* Batzarre berezi bat egin du Hondarribian, Arrasaten hartutako erabakiari jarraituz, gramatika azterketa lanei bultzada emateko.

Beharrezkoen ditugun zenbait gai aurkeztu ondoan, Batzordea izendatu da:

Buru: P. Lafitte

Buruorde: J. Haritschelhar

Idazkari: P. Goenaga

Idazkari orde: M.^a P. Lasarte

eta batzorde lagun Arrasateko batzarrean txostenak egin zituztenak, eta gaur egun gramatika lanetan sartuak direnak.

Batzorde hau irekia da gai honetan lan egin nahi dutenentzat.

Lehenbiziko bilera, Donostian, Maiatzaren 29an izango dute, aldez aurretik Batzorde zuzendaritzak prestatutako gaiak finkatu eta lanei hasiera emateko.

Hondarribian, 1980.eko Apirilaren 18an.